

DIRU ITURRIAK

Prezio finkoak aldagai estatikoen arabera aurredefinituta daudenak dira. Hauen barruan honako hauek daude:

- Zerrendako prezioa: produktu edo zerbitzu indibidualei jartzen zaien prezio finkoari esaten zaiona. Pultserari jarriko diogun prezioa izango litzateke, 29'95€.
- Ezaugarrien araberako prezioa: produktuaren kopuruaren edo kalitatearen araberako prezioa. Esate baterako, pultsera egiteko silikonak gutxiago balio du zilarra izango balitz baino.
- Merkatu-segmentuaren eta bere ezaugarri berezien araberako prezioa: bezero jakin baten profilaren arabera ezartzen den prezioa da.

Gure pultsera jende guztiari zuzenduta dagoenez, ez du oso prezio altua izango, denak eros ahal dezaten. Ditugun kostu eta irabazi nahi dugunaren arabera, hau da, lortu nahi dugun marjinaren arabera, prezioa finkatuko dugu.

Bolumenaren araberako prezioa: prezioa aldatu egiten da, erositako kopuruaren arabera. Gero eta gehiago erosi, produktua orduan eta garestiagoa aterako da.

Bestalde, prezio dinamikoak aldiz, merkatuaren egoeraren arabera aldatzen direnak dira. Eta hauen barnean hauek aurkitu ditzakegu:

- Marjinaren kudeaketa: inbentarioaren eta erosketa egiteko denboraren araberakoa izango da prezioa. Gure kasuan, prezioa ez da aldatuko jendeak erosten duen urtaro edo epealdiaren arabera.
- Denbora errealeko merkatua: eskaintza eta eskaeraren legearen arabera finkatzen da prezioa. Burtsak halaxe funtzionatzen du, hain zuzen ere.